

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabide fisikoak

Enpresaren baliabide guztiak biltzen ditu: lanerako lonja, ordenagailua, telefonoa, duxak egiteko materiala eta makineria izango dira gure baliabide fisikoak. Lanerako lonja erabiliko dugu produktua sortzeko, hasiera batean Euskal Herriko zenbait herritan kokatuko ditugu eta gure enpresa handitzen joaten den heinean, beste autonomia-erkidego batzuetara zabalduko dugu gure enpresa enplegua sustatzeko. Ordenagailua eta telefonoa funtsezkoak izango da bezeroarekin eta beste enpresekin harremanetan egiteko. Azkenik, duxak egiteko materiala eta makineria gure produktua ahalik eta hoberen egiteko.

Baliabide intelektualak

Baliabide ez-fisikoak eta ukiezinak dira, hala nola marka, patenteak, jabetza intelektualak, egile-eskubideak eta baita elkarteak ere.

Patenteak, marka-erregistroak eta prozesuak barne hartzen ditu. Jabetza intelektualak aktibo garrantzitsua da gure enpresarentzako, beste enpresa batzuek prozesuak edo markak kopia ahal izatea saihesten baitu. Ekonomia modernoetan, baliabide ukiezin horiek jabetza intelektualeko legeen bidez babesten dira, teknologia eta prozesu berriak garatzeko pizgarriak sortzeko. Babes horiek egongo ez balira, ikerketarako eta garapenerako pizgarriak oso txikiak izango liriteke, edozein enpresak prozesu eta teknologia jakin batzuk kopia ahal izango lituzkeelako ikerketa eta garapenean inbertitu gabe. Gure kasuan, patente-eskaera bat egingo dugu, gure enpresari gure produktua emateko eskubide eskusiboak izango dena. Eskubide horrek gure asmakizuna modu eskusiboan fabrikatzeko eta merkaturatzeko aukera ematen digu, eta gure asmakizuna kopiatzen saiatzen den beste edozein pertsona edo erakunde auzitara eraman dezakegu.

Bestalde, aktibo intelektualak enpresaren barruan sortutako aktibo ukiezinak dira, baina ezin dira jabetza intelektual gisa erregistratu. Adibideak dira langileen zerrendak, datu-baseak, enpresak garatutako programa informatikoak. Erregistratu ezin diren arren, aktibo garrantzitsua dira enpresarentzat, enpresaren arrakasta zehaztu dezaketelako. Horregatik babestu behar dira.

Giza baliabideak

Gure enpresako bazkide eta langile guztiak funtsezkoak izango dira enpresaren helburuak lortzeko; hau da, gure enpresan lan egingo duten pertsonak, haien ezagutzak eta trebetasunak. Alde batetik, produkzioarako langileak izango ditugu produktua aurrera eramateko eta sortzeko eta bestalde, bezeroaren arretarako langileak kontratatuko ditugu enpresaren eta bezeroaren komunikazioa sustatzeko.

Finantza baliabideak

Gure ekintzaitza gauzatzeko behar duzun kapitala lortzeko bitartekoak dira. Merkaturan abantailak lortzeko eta finantza-tresnak menderatzeko aukera ematen digute, posizio lehiakorragoan kokatzeko. Gure kasuan, mailegu bat eskatuko dugu bankuari eta gure aurrekontuak.